



VII. BIZIKIDETZA KANPAINA

LEHIAKETA

“ZUREKIN JOLASTEN BAGARA, ONGI JOLASTEN GARA”

Bizikidetza hobetzeko VII. kanpaina, “ZUREKIN JOLASTEN BAGARA, ONGI JOLASTEN GARA”, jolas kooperatiboen lehiaketa bat da. Nafarroako ikastetxe guztiek har dezakete parte.

Lehiaketaren helburua da ikasleen inklusioa eta lankidetzaren sustatzea, ikasgelan zein jolastokian. Jarduera ludikoetan parte har dezaten bultzatu nahi da, jarduera horien bidez modu konstruktiboan gozatzeko aukera izan dezaten eta eraikitzen dituzten harremanak positiboak eta berdintasunean oinarrituak izan daitezten. Horretarako, proposatzen da aldeak errespetatzen dituzten jolasak diseinatzea eta hautatzea, irabaztea edo galtzea helburu duten lehiatzeko dinamikak erabiltzen ez dituztenak, hots, ikaskideek baino trebetasun handiagoak erakustea bilatzen ez dutenak. Hala, gairik beharrek aurkari edo etsaitzat hartu beharrean, jolasarekin gozatzeko eta partekatuzeko aukera emanen duten pertsonatzat hartuko dira ikaskideak.

LEHIAKETAREN OINARRIAK

1. Jolas kooperatiboak soilik onartuko dira. Lehiatzeko jolasak kanpo utziko dira.
 2. Eskakerak lau kategoriatan sailkatuko dira:
 - a) Haur Hezkuntza
 - b) Lehen Hezkuntzako 1.a, 2.a eta 3.a
 - c) Lehen Hezkuntzako 4.a, 5.a eta 6.a
 - d) DBHko 1.a eta 2.a
 3. Ikastetxe bakoitzak jolas bakar bat aurkezten ahalko du kategoriako.
 4. Dokumentuen aurkezpena:
 - Parte hartzeko eskabidea (I. eranskina).
 - Jolastokian nahiz ikasgelan, ikasle talde batekin garatu den jolas kooperatiboa deskribatzeko fitxa (II. eranskineko ereduari jarraikiz).
 - Dokumentazio gehigarria (gutxienez taldearen argazki bat, jolas horretan ari den bitartean).
- Hezkuntza Departamentuak ikastetxeek aurkezturiko materiala osorik edo zati batean hedatzeko eskubidea izanen du.
5. Aurkezpen epea: 2015eko otsailaren 23tik martxoaren 23ra arte. Materiala ondoko helbidera igortzen ahalko da: convive@cfnavarra.es

6. Epaia 2015eko maiatzean jakinaraziko da eta apelaezina izanen da. Saritutako ikastetxeen zerrenda Bizikidetzarako Aholkularitzaren web orrian argitaratuko da, maiatzeko azken astean.

7. Sariak:

- Jolasetarako material sorta bat, kategoria bakoitzeko lehen bi sailkatuentzat.

- Diplomak, aipamen berezia jasotzen dutenentzat.

Saria jasotzen duten 8 jolasetako irakasle arduradunek prestakuntza kreditu baten egiaztapena jasoko dute, Hezkuntza Departamentuak luzatua.

8. Bizikidetzarako Aholkularitzak ondoko irizpideak erabiliko ditu sariak emateko:

- Integrazioa eta inklusioa sustatzea.
- Mutilen eta nesken arteko berdintasunezko harremana sustatzea.
- Praktikara eramateko erraza izatea.
- Ez eskatzea baliabide ekonomikoen gastu altua.
- Beste ikastetxe batzuetan ere aplikatzeko modukoa izatea.
- Berdinketarik egonez gero, beste irizpide batzuk ere hartu ahal izanen dira kontuan, hala nola, parte-hartzaileen kopurua handiagoa izatea, edota sormena edo errotze kulturala sustatzea.

I. ERANSKINA - PARTE HARTZEKO ESKABIDEA

IKASTETXEAREN DATUAK	IZENA:
	HERRIA:
	TELEFONOA:
	EMAILA:
	IKASTETXEKO IKASLE KOPURUA:
ARDURADUNA	IZENA:
	IKASTETXEAN DUEN LANPOSTUA: (tutorea, espezialista...)
	KONTAKTUA (ikastetxeko orokorraz bestelakoa bada):
JOLASA GARATU DEN IKASMAILA	
PARTE HARTU DUTEN BESTE PERTSONA BATZUK (irakasleak, familiak...)	
OHARRAK	

Eguna:.....

Sinadura:.....

II. ERANSKINA - JOLASARI BURUZKO INFORMAZIO FITXA

JOLASAREN IZENA:	
ZEIN ADINETARAKO DEN:	
PARTE-HARTZAILEEN KOPURUA:	
GUTXI GORABEHERAKO IRAUPENA:	
TOKIA:	
ORIGINALA / ASMATUA ITURRIETATIK HARTUA (Nondik)	
JOLASTEKO BEHAR DIREN MATERIALAK:	
JOLASAREN AZALPENA (ARAUAK):	
JOLAS ESPERIENTZIAREN DESKRIBAPENA (parte-hartzaileen kopurua, zenbatetan eraman den praktikara, non, parte-hartzaileen eta arduradunen gogobetetze maila...)	
ESPERIENTZIA EGIAZTATZEKO DOKUMENTUAK:	

Fitxak ondoko estekan aurki daitezke:
<http://www.educacion.navarra.es/web/dpto/educacion-en-valores/asesoria-para-la-convivencia/profesorado1>